

IRAGARKIA

Bermeoko Udalak 2014ko urriaren 30ean izandako Osoko Bilkuran AZOKAKO UDAL ORDENANTZEA hasieraz onartu eban; 2015eko martxoaren 4an BAOan argitaratu eta jagokon epea igarota, alegaziorik aurkeztu ez danez, behin betiko onartuta gelditzen da, ondoren adierazoten dan moduan:

**BERMEOKO UDAL AZOKEARENTZAT BARRUKO UDAL ARAUDIA
LEHENENGO TITULUA****1. artikulua.— Helburua**

Herriko Udal Azokearen hornidura zerbitzu publikoaren funtzionamentua, salmenten, instalakuntzen eta generako euren zerbitzu guztien erregimen administratiboa.

**LEHENENGO KAPITULUA
XEDAPEN OROKORRAK****2. artikulua.— Zerbitzu publikoa**

Udal Azokeak zerbitzu publikoaren izaerea dauka, beraz, udalak beharrezkoa dan eskuhartze administratiboa izango dau, osasuna eta garbitasuna zainduko eta bere eskumenekoak izanda agintea erakusten daben generako funtzino guztiak beteko.

3. artikulua.— Xedea

Udal azokan postuak eta mahaiak dagoz eta euren ezaugarriak kontuan eukita, euren erabilerea eta erregimena ezbardina izango da.

4. artikulua.— Ordutegia

Salmenta ordutegia Azokan, opor erregimena, etab. alkateak finkatuko dauz Bermeoko Udal Azokako Saltzaile Alkateak esandakoa entzun eta gero.

Saltokietako titularrak eta euren enplegaduak, jentearentzako saltokia zabaldu baino ordubete lehenago sartu daitezke Azokara eta ordubete geroago urten. Euren salgaiak prestatzeko edo kentzeko denpora gehiago behar daben saltzaileek, alkatearen baimen espresua eskatu daikie.

Ordutegi honetatik kanpo, ez jako itziko inori Azokan egotea udal baimen barik.

Ezarritako ordutegi barruan bakarrik jarri ahal izango dira «salmahaiak»,



gero, produktu moeta danak, hondakinak eta enbalaketa guztiak kendu egin beharko dira.

5. artikulua.— Iragarkiak

Merkatuaren leku ikusgarrian jarriko da Iragarkien Taula Ofiziala. Bertan ipiniko dira barru erregimeneko edo izaera orokorreko xedapen guztiak. Saltokietako titularrak, Bermeoko Udal Azokako Saitzaileen Alkartea eta herriko jentea orokorrean, xedapen horreetaz legez jakinarazota ulertuko dira, esandako era honetan argitaratuta eta beste baldintza barik.

6. artikulua.— Salgaien zamalanak

Udalak ezarritako ordutegian eta eratan burutuko dira salgaien zamalanak.

Salgaien zamalanak horretarako ezarritako lekuetan bakarrik egingo dira.

Azokarainoko eta bertako barruko garraioa, behar diran garbitasun baldintzetan egingo da, ibilgailu eta garraibide egokiak erabilirik.

Garraioaren edo zamalanen ondorioz, eurek daroezan salgaietan eta enbalaketetan jasandako kalteen erantzukizuna garraiolariena izango da.

7. artikulua.— Salgaien salmentea eta erakusketea

Salmentea pisura egingo da orokorrean, banaka, hamabikoka edo beste eraren batera saltzeko ohiturea daukien salgaien kasuetan izan ezik.

Horretarako jarrita dagozan leku edo saltoki barruetan bakarrik erakutsi eta ipiniko dira salgaiak, kaleak edo igarobideak helburu horregaz erabiltea debekatuta geratzen dalarik; hutsik egon beharko dira erosleak bertatik ibili ahal izateko. Debekatua dago: saltze orduetan, saltoki batetik bestera salgaiak eroatea; hutsik dagozan ontziak eta sastarrak iztea erakusteko edo saltzeko dan azalera eta baita kale eta igarobideetan be.

8. artikulua.— Baimendutako salgaiak

1. Postuen kasuan:

Saltokien izena kontratuan agertuko da eta bakotxean saltzen dana izen horrerri jagokona izango da eta udalaren baimen barik ezin izango da aldatu.

Bere izenburuaren arabera, ondorengo artikulua saldu daitezke saltoki bakotxean:



1. Frutak eta barazkiak: Fruta, barazki eta ortuari freskuak, patatak eta beste tuberkuluak. Erosleek ez dabe ikutuko inondik be, erakutsita dagoana.

2. Okelak: Idia, behia, txekorra, txarria, ardia, arkumea eta ahuntzaren okelea salduko da. Okela horreek be saldu daitezke, baita produktu laboratuak be bai, aitaturako okela horreek elementu nagusi lez sartuta egonez gero. Produktu izoztuak saltzen badira, jagokozan hotz-instalakuntzaz hornituta egon beharko da saltokia.

3. Zaldi okelearen salmentea: Zaldi okelearen salmentarako bakarrik.

4. Urdaitegia: Urdai freskua, umatua edo gazia, urdaiazpiko gazia edo egosia, saltxitxoia, txorizoak eta beste hesteki edo sakote batzuren salmentea baimentzen da.

5. Aberekinak: Izoztuta edo gainerako barrukoak.

6. Arraultzak, hegaztiak, abeletzeko untxiak eta ehiza-okelak.

7. Arrainak: Arrain freskua edo izoztua eta moeta guztietako maskorrak. Erosleek ezin izango dabe ikutu erakutsitakorik.

8. Aurretiaz egosita, prestatuta, hoztuta edo izoztutako produktuen salmentea.

9. Janariak: Lekariak eta laboreak, kontserbak, gailetak, kafeak eta txokolateak, kakao hautsa eta honen eratorkinak, orekiak (makarroiak, spagettiak, etab.), orioa eta ozpina, gatzak eta beste espezieak, azukerea, ezta, irasagarriak, jalea, turroiak eta mermeladak.

10. Salazoiak: Makailua, beste arrain gaziak, sikuak edo gatzuretan beratuak. Atuna edo hegaluzea eskabetxean eta beste arrain kontserba. Erosleek ez dabe ikutuko erakutsitakorik.

11. Ozpinetakoak: Olibak, pepiniloak eta moeta guztietako ozpinetakoak.

12. Fruitu lehorrak: Pinaziak, almendrak, patata frijituak, azalak, gantxotxuak, etab.

13. Okindegia eta esnea: Ogi moeta guztien salmentea moldekoa edo sandwichekoak sartuta, dultze gabeko erroskoiak, boilo arruntak, ogiaren orantza, oriozko ogia, gantza edo esnea, obleak edo barkiloak. Esne naturala, esterilizadua edo pasteurizadua. Gurina, esne-gaina, gaztai moeta guztiak, yogurth eta beste esneki batzuk. Ontzi barruan ez dagoan produkturik ez dabe ikutuko erosleek.



14. Gozotegia: Gozokiak, pastelak, tartak, hostopilak, pastak, bonboiak, txokolateak, karameloak, turroiak, mazapaiak, dultzezko kontserbak, izozkiak eta gozotegiko beste produktu batzuk. Ontzi barruan ez dagoan produkturik ez dabe ikutuko erosleek. Behar dabenak hotzetan euki beharko dira.

15. Edariak: Alkoholdun edo alkohol bako edari moeta guztiak, ur minerala be barruan sartzen dalarik. Esnerik ez.

16. Lorak eta landareak: Lora eta landare moeta guztiak, naturalak edo artifizialak, haziak, bukaroak, lorapoteak eta buztin edo lozazko beste ontzi guztiak.

17. Egunkarien kioskoa: Edozein moetatako egunkari eta aldizkariak, hau da, aldizka argitaratzen diranak.

18. Janaridendak ez diranak: (Lanabesak, burdindegia, erlojuak, etab.)

19. Garraio publikoetarako txartel salmentea.

20. Kafetegia. Udal Azoka guztian kafetegi bat bakarrik egon ahal izango da, kafetegi bakar bategaz zerbitzu hori beteta ulertzen dalako.

Zerrenda honetan izendatu baino ez dira egiten, horrek ez dau esan gura salmentak honetara bakarrik mugatzen diranik. Hemen agertzen ez dan produkturik saldu nahi izanez gero, udalak hartuko leuke erabagia afektatutako saltzaileei audientzia emon eta gero.

2. Mahaien kasuan:

Azokearen helburuetariko bat nekazal produktuen salmentea sustatzea izanda, salmenta hau mahaietan egingo da.

Bereziki inguruko baserrietan ekoiztutako produktuak eta produktu ekologikoak saltzea bultzatu gura da eta, ondorioz, ekoizle profesionalak lehentasuna eukiko dabe mahaiak erabili eta okupatzerako garaian.

Saltzen diran produktuak inguruko baserrietakoak edo ekologikoak dirala kreditatu beharko dabe horretarako baimendutako saltzaileek eta, udalak, egokiak diran ikuskapenak egin ahal izango dauz, bai eta kreditatzeko beharrezko agiriak eskatu.

BIGARREN TITULUA ERREGIMEN JURIDIKOA



**I. KAPITULUA
POSTUEN ERABILEREA****I. SEKZINOA
PRESKRIPZINO OROKORRAK****9. artikulua**

Azokako saltokien kontzesinoak, eurok erabilteko eta gozatzeko eskubidea emoten deute titularrei, baumendutako salgai eta produktuak saldu ahal izateko.

10. artikulua

Salgaien salmentan maula-hutsegiteetan behin eta berriro jausi ez dan pertsona fisiko edo juridikoak eta azken zigorra jarri deusienetik hona urtebete igaro ondoren, izango dau eskatzaileak saltokiaren titularidadea.

11. artikulua

Merkaduko saltokiak euren banakuntzetan mugatuta egongo dira eta kontzesinodunen produktuakaz okupatuta egongo dira beti.

Eragin guztietarako, unidadea saltokia da, praktikan beste bategaz edo batzuekaz batuta egon daitekeen arren.

Esleipendun bakotzak ezin izango dauz postu bi baino gehiago euki, ez bada postu libreaz dagozala eta udalak hirugarren bat eukiteko baimena emoten deusola. Baimen honen iraupena urtebetekoa izango da.

12. artikulua

1. Araudi honek ezarritako baldintzakaz, titularidadea holan lortu daiteke:

- a) Enkante bidez hutsik dagozan saltokiak adjudikatuta.
- b) Heriotza zioagaitik esleituta.
- c) Bizien arteko egintza bidez jaubez aldatuta.

b) eta c) kasuetan, titularidade aldaketea ezkontideen eta 2. gradura arteko senideen alde baino ez da onartuko.



2. Postuak okupatzeko emakidearen iraupena hogeita hamar urtekoa izango da. Epe hori igarota, postua udalaren esku geratuko da automatikoki.
3. Postu hutsak egon ezkeru, aldizkako okupazioak baimendu ahal izango dauz udalak, beti be postuak okupatzeko eskaria Azokearen izaereagaz bat badator edota Azokearen dinamizazioa edo sustapena indartu leikela eristen bada.

II. SEKZINOA ENKANTE BIDEZ HUTSIK DAGOZAN POSTUEN ADJUDIKAZINOA

13. artikulua

Enkaterako Baldintza Agirien barruan dagozan erispideen arabera egingo da saltokien adjudikazio hau.

III. SEKZINOA HERIOTZA ZIOARI JAGOKON ESLEIPENA

14. artikulua

Azokako saltokiaren titularra hilez gero, haren ezkontidea eta 2. gradura arteko senideak, hildakoaren eskubide eta betebeharrak subrogatu daikiez, baina ezin izango da pertsona bat baino gehiago titularra izan. Alkatearen baimena beharko da jaube-aldaketea egiteko.

15. artikulua

Aurreko artikuluan azaltzen dan subrogazio eskubidea, titularren heriotza ondoko larogita hamar egunen barruan burutu beharko da.

Eskubidearen onuradunak bat baino gehiago balira eta euren artean adostasunik ez balego, bertan ezarten dan lehentasun hurrenkerea gordeko litzateke. Talde bakoxtaren barruan kontuan izango da graduaren hurretasuna, legezketasuna, eta bere kasuan, odol-ahaideketasuna eta lokarri bikotxa. Bardinketea dagoan kasuetan, familia-zamarik handiena daukanaren alde jokatuko da.

4. SEKZINOA BIZIEN ARTEKO JAUBE-ALDAKETAK



16. artikulua

Bizien arteko jaube-aldaketak, eskualdaketa bidez egin daitezke, baina beti be ezkontideen eta 2. gradura arteko senideen alde bakarrik.

Beste motatako eskualdaketarik ez da onartuko.

17. artikulua.— Eskualdaketea edo jaube-aldaketea

Aurreko artikuluan aitatutako transmisinoa egiten dauenak eta bai hartzen dauenak izenpetutako eskaria aurkeztu behar da. Saltokiaren destinoa edo kontzesino eskubidearen xedea adierazoko da bertan. Xede hori aurrekoa lakoa izan beharko da. Salbuespen bakarra, saltokia «ezbardinak» saltzeko izan bada emongo da. Saltokia hartzen dauena, araudi honek, pleguek eta aplikagarriak liratekeén xedapen guztiek ezarritakora makurtuko da.

**BIGARREN KAPITULUA
MAHAIEI ERABILEREA****18. artikulua**

8. artikuluan xedatutakoa helburua dala eta, mahaien erabilerea aldizkakoa izango da eta, bertan, inguruko baserrietako produktuak edota nekazal produktu ekologikoen salmentea sustatu gura da.

Hori horrela, nekazal produktuak saltzeko interesa daukien saltzaile guztientzat mahairik egongo ez balitz, saltzaileen arteko lehentasuna modu honetan finkatuko litzateke:

1. Bermeoko Udalerriko nekazal produktu ekologikoen ekoizle profesionalak.
2. Eskualdeko nekazal produktu ekologikoen ekoizle profesionalak.
3. Bermeoko Udalerriko nekazal produktu ez ekologikoen ekoizle profesionalak.
4. Eskualdeko nekazal produktu ez ekologikoen ekoizle profesionalak.
5. Bermeoko Udalerriko nekazal produktu ekologikoen saltzaileak.
6. Eskualdeko nekazal produktu ekologikoen saltzaileak.
7. Bermeoko Udalerriko nekazal produktu ez ekologikoen saltzaileak.
8. Eskualdeko nekazal produktu ez ekologikoen saltzaileak.
9. Bestelako saltzaileak.

Mahaien erabilerea saltzen dabezan produktuan inguruko baserrietakoak edo ekologikoak diralako eskuratzen dan kasuetan, saltzaileek produktuen jatorri edo ezaugarri hori kreditatu beharko dabe eta, udalak, egokiak diran ikuskapenak egin ahal izango dauz, bai eta kreditatzeko beharrezko agiriak eskatu.



Saltzaileek era egokian identifikatuko dabez produktuen ezaugarri, kalidade eta jatorria, erosleek argi ikusteko moduan. Hori holan dala, produktu ekologikoak eta ez ekologikoak, bereizita eta modu egokian identifikatuta egongo dira.

19. artikulua

Mahaiak erabili ahal izateko, saltzaileek agiri honeek aurkeztu beharko dabez:

- Eskatzailearen NANaren fotokopia eta Identifikazio Fiskaleko Kodea (pertsona juridikoa danean).
- Langileen NANaren fotokopia.
- Gizarte Segurantzako Altearen ziurtagiria eta kotizazioen sarrerako azken ordainagiria.
- Jarduera Ekonomikoen ganeko Zergaren Altako egiaztagiria eta azken ordainagiria.
- Pertsona juridikoen kasuan, jagokon merkataritza-erregistroan behar dan moduan izena emonda dagoala egiaztatzen dauen enpresea eratzeko eskriturea. Horrez gain, ordezkaritza egiaztatu beharko da zuzenbidean baliozkoa dan edozein baliabideren bidez.
- Higiene eta osasun arloko baldintzak beteten dirala egiaztatzen dauen dokumentua eta, hala eskatzen daben elikagaien kasuan, langileek elikagaien manipulazio arloko prestakuntza jaso dabela egiaztatzen dauen ziurtagiria.
- Nekazaritzako Ustiatzearen Erregistroan sartuta dagoan langileek hori egiaztatu beharko dabe jagokon dokumentuaren bidez.
- Kotizatuz gero, Gizarte Segurantzako Nekazaritzako Erregimenaren fotokopia.
- Baimentzea eskatzen dan aldiaren zehaztapena. Horretarako, hasierako eta amaierako datak zehaztu beharko dira.

HIRUGARREN KAPITULUA TITULAR ETA SALTZAILEEN ESKUBIDE ETA BETEBEHARRAK

1. SEKZINOA TITULAR ETA SALTZAILEEN ESKUBIDEAK

20. artikulua

Baimendunak diranak hartuko dira titular modura. Saltzaile legez, titularrak izan edo ez salmenta jardueran ari diranak hartuko dira.

Euren jarduerara, ezarritako eran burutzeko beharrezkoak diran zerbitzu publikoko ondasunak erabilteko eskubidea izango dabe saltokietako titularrek.

21. artikulua



Salmentak eskudiruz egingo dira. Azokan bertan lehen erositako zeozer ordaindu ez badau erosleak, saltzen ari dan salgaiaren salmentea ukatu leikio saltzaileak.

2. SEKZINOA SALTZAILEEN BETEBEHARRAK

22. artikulua

Behartuta egongo dira saltzaileak:

a) Saltzen dauzan gai guztien prezioa agertzen dauen taulatxu bat ipintea jendaurrean.

b) Saltzeko erakutsita daukan bariedade bakotxari jagokon prezioa jarri beharko dau; salgai bakotxari kiloko, litroko, dozenako edo pieza prezioa adierazten dauen txartel edo banderatxo bat jarriarik, artikuluaaren sailkapenagaz batera.

c) Janariak erabili ahal izateko formazioa izatea.

3. SEKZINOA TITULARREN BETEBEHARRAK

23. artikulua

1. Bai pertsonalki edota lehen graduko senide bitartez, saltokia okupatzea, Araudi honek ezarritako baldintzetan.

2. Udalak onartuta daukazan eskubideak, tasak edo prezio publikoak ordaintzea.

3. Adjudikatutako postuetan edozelako obra edo instalakuntzea egiteko udal lizentzia lortzea.

4. Saltzen diran artikulua edo artikuluen izakin guztiak begi-bistan izatea. Ezin izango dabe, beraz, gordeta, aukeratuta edo bereiztuta euki euretariko zati bat. Izozkailuan dagozanak be saltzera ipintea agindu leike udalak. Saltokian dagoan guztia saltzeko dagoala ulertuko da, «salduta» leku agirian ez badakar.

5. Saltzaileak euren artean, bezeroakaz eta baita Azokan lan egin behar daben udal funtzionarioakaz portaera ona izango dabe.



6. Garbitasunik handiena izango dabe eta bezeroek salgaiak eskuartean ez erabilten ahaleginduko dira.
7. Udal ordezkariari edota udal albaitariari edo honeek izendatutako pertsoneri erakutsiko deusiez saltzeko daukiezan salgai guztiak, armairu, hozkailu edo ontzietan dagozanak be bai. Ezin izango dabe ikuskapenaren aurka egin ez eta, diktamena egin ondoren, herriaren osasunarentzat kaltegarri legez aitortuak diranak kentzearen aurka be ez.
8. Baimendutako titularrek eta bertan arituko diran langileak, ahal dan neurrian, euskaldunak izango dira, agurra eta 1.berbea euskeraz izango dira, eta euskeraz normaltasun osoz jarduteko gaitasuna izango dabe. Izan be, euren lan hizkuntzea euskerea izango da, eta zerbitzua be euskeraz emongo dabe, beti be bezeroak euskerea ez dan beste hizkuntzaren bat aukeratzen ez badau. Saltokiaren titularrak euskeraz ez jakitekotan be, agurra beti izango da euskaraz.
9. Saltokian errotulurik ipintekotan, euskeraz ipiniko dira. Horrezaz ganera, Azokako errotuluen bateratasuna gordeteko ezaugarriak be bete beharko dira.

Errotulua ipinteagaitik dirulaguntzak izango dauz emakidadunak Errotuluak Euskeraz ipinteko Dirulaguntzak arautzen dauzan Ordenantzeagaz bat etorritz.
10. Saltokietan salgaiak identifikatzeko, Bermeoko Udal Azokearen barru Araudiaren 21. artikuluan zehazten diran taulatxuak, txartelak eta banderatxuak euskeraz idatzita egongo dira.
11. Aurreko puntuan ezarritakoaz gain, saltokian zein saltokitik kanpo ipini beharreko edozein iragarki, ohar, abisu... euskeraz ondo idatzita egongo dira. Eta, beste hizkuntzaren batean idatzi behar izatekotan, euskerazko testuari lehentasuna emongo jako, euskerazko testua bi aldiz handiago idatziz.
12. Jarduerearen publizitaderik egitekotan, euskeraz egingo da.
13. Udaleko Euskera Sailak aholkularitzea eta baliabide teknikoak eskainiko deutsoz emakidadunari, bere ohiko jardunean euskerearen erabilera egokia ziurtatzeko beharrezko dauenean.
14. Udalak saltokiaren titularragaz izango dauzan hartu-emonetan euskerea erabiliko dau, idatzizkoan zein ahozkoan.
15. Erosketearen frogagiri lez albarana izatea, eroslearen izena, erositako artikulua, prezioa, neurketa unidatea eta egunagaz.



16. Saltzeko erakutsita daukien bariedade bakotxari jagokon prezioa jarri beharko deusie; salgai bakotxari kiloko, litroko, dozenako edo piezako prezioa adierazten dauen txartel edo banderatu bat jarririk, artikuluaaren sailkapenagaz batera.

17. Betebehar guztiak, bai fiskalak eta bai laboralak beteta eukitea.

III. KAPITULUA AZOKAN EGINGO DIRAN OBRAK ETA INSTALAKUNTZAK

24. artikulua

Postuetan, biltegi-deposituetan edo Azokako beste edonon egingo diran obrak eta instalakuntza guztiak eta lurzoruari, hormeari edo eraikinaren gorputzari lotuta geratzen badira, zerbitzu hartu-emonaren amaituta be, udal administrazioaren onurarako geratuko dira.

25. artikulua

Titularrek ordainduta izango dira, Azokako postuetan egingo dabean egokitze eta hobekuntza obra edo instalakuntza guztiak eta euren kontserbazino gastuak be.

26. artikulua

Arau honeetan aurrikusten ez dan guztirako, udalerrian indarrean dagoan lizentzia eta baimenen erregimena izango da aplikagarria.

IV. KAPITULUA FUNTZIONAMENTSU ARAUAK

27. artikulua

Salgaietan jasandako kalte, lapurreta edo narriaduretan udalak ez dau izango erantzunkizunik. Benetako eta bere zainketa propio baten ardurarik be ez dau hartuko, Azokan zaintza zerbitzua jarriko dan arren.

28. artikulua

Ontzi eta enbalaketa hutsak ezin izango dira egon saltokietan 24 ordu baino gehiagotan.

Itzultzen ez diran ontzien derrigorrezko erabilerea agindu daike udalak, baita ontzi eta enbalaketen bilketa zerbitzua derrigorrez erabiltea be, jagokon



Ordenantza Fiskalaren barruan ezarten dan tasa edo tarifearen prezioa ordaindurik.

29. artikulua

Erakunde ofizialek baimendutako ereductara egokitu beharko dira Azokan erabili behar diran pisatzeko eta neurtzeko aparatuak.

Egoki ikusten dauen bakoitzean eta edonoiz egiaztatu daike udalak euren doitasuna.

Erosleek irakurteko moduan jarriko diran balantza automatikoen erabilerea gomendatzen da.

30. artikulua

Azokako isurtegi edo kainozuloetara jaurtiko dabez saltzaileek ur zikin edo hondakin urak. Ez da itziko ur zikin horreek ontzi edo baldeetan eukiten.

31. artikulua

Abere-hondakinak garbitea, barrutera ataratea, abereak hiltzea edo salmenta jardueratik kanpoko beste honelako edozein lan Azokan egitea debekatuta dago.

32. artikulua

Saltzeko dan arraina, otzaretan edo beste honelako ontzi egokietan zabaldua egongo da.

Etorki ezbardina daben arrainik nahastea ez da onartuko, eta saltoki batean ipinten badira be, bereiztuta jarriko dira, portzino bakoitzean, nongoak edo zelakoak diran esanez txarteltxu edo banderatu batean.

33. artikulua

Salgaiak nongoak diran eta euren prezioa ahoz aldarrikatzea eta erosleei deitzea debekatuta dago.

Euren saltokien kanpoaldean, joan-etorria eragotziz ezin izango dira jarri zutunik ez jesarrita titularrak ez eta euren enplegaduak be.

34. artikulua



Azokan dagozan bitartean, erositakoa ikutu barik mantendu beharko dabe erosleek. Ezin izango dabe, beraz, erositakoaren barruan pisuan sartu dan hazurrik ez hondakinik bota.

HIRUGARREN TITULUA OSASUN ETA KONTROL UDAL ZERBITZUA

LEHENENGO KAPITULUA XEDAPEN OROKORRAK

1. SEKZINOA UDAL KONTROLA

35. artikulua

Azokearen administrazioaz arduratuko dan pertsona izendatu daike udalak.

36. artikulua

Udaleko osasun zerbitzuei jagokezan osasun-garbitasun arloko ahalmenen kalte barik, udalari edo berak horretarako izendatutako pertsoneari ondorengo eginkizunak jagokoz:

a) Udalaren kontura, Azokan lanen bat garatzen dauen langileria guztia zuzentzea.

b) Azoka jardurearen ohiko garapena zaintzea, saltokietako titular edo saltzaileek edota Azokara datorren jenteak jarri daitekeezan kexak edo erreklamazioak aditurik.

c) Saltokietako titularrakaz eta Saltzaileen Alkarteagaz hartu-emon zuzena izatea, eta bere kasuan, euri jagokezan jakinarazpen guztiak adierazotea.

d) Betebeharrak beteten dirala eta Azokearen eta bere instalakuntza guztien garbitasuna, ordena ona eta funtzionamentua zaintzea.

e) Azokearen dependentsia guztiak ikuskatu, bai barrukoak eta bai kanpokoak be; pisatu eta neurtzeko instrumentu guztiak be bai, birpisatze zerbitzua buruturik, beharrezkoa balitz.

f) Eraikinaren eta bere instalakuntzen kontserbazinoaz eta mantenuaz arduratzea, Azokearen ordena eta funtzionamentua zaintzea eta titularrei eta



saltzaileei Araudi honen bidez ezarritako betebeharrak zuzen beteten dirala zaintzea.

g) Gertatzen diran gorabehera, lege-urratze eta akatsen barri emotea Alkatetzeari.

2. SEKZINOA ALBAITARITZA UDAL ZERBITZUA

37. artikulua

Azokearen eta salgaien osasun eta garbitasun ikuskaketea egitea Albaitaritza Zerbitzuari jagoko. Zerbitzu honetako titularrak aginte izaerea izango dau bere eginkizunetan, ondorengo eskumenen jaube izango dalarik:

a) Azokako saltoki, instalakuntza eta dependentzia guztietan beharrezkoa dan garbitasuna dagoala zaintzea, bardin produktuak erabilten dauzan pertsonalarena be.

b) Saltzeko diran edota bilduta dagozan janariak zuzenean aztertzea, behar dan beste bider eta zerbitzuak edota udalak emondako osasun aginduak beterik eskatzen jakon baktxean.

c) Kontsumitzeko baldintza nahikorik ez daukan janariaren geldiarazte kautelarra agintzea.

d) Geldiarazte aktak emotea interesatuei.

e) Izozkailuen garbitasun egoerea zaintzea eta izan behar daben hotza finkatzea, bertan dagozan janarien beharrianen arabera. Izozkailu horreetan sustantzia bateraezinak edo aldatuak ez ipinteko ahaleginak egitea, baita barruan dagozan produktuak egunero ikuskatzea.

Ganbaretan sartzen diran produktuak garraioko osasun gida egokiakaz babestuta etorriko dira.

f) Egindako bisitaldien gorabeherai buruzko txostena emotea udalari, geldiarazo edo suntsitutako salgaiak adierazoz, zergaitik egin diran eta zein saltzailerrenak ziran.

g) Azokan saldutako salgaien egoerea edo kalidadeari buruz egiten jakozan salaketak aditu, egin daitekezan osasun arloko maulak ekiditeko neurriak harturik. Erositako salgaien osasun egoereari buruzko erreklamaziorik egiten dauenean erosleak, erreklamazinoaren barri emongo dau albaitariak.



38. artikulua

Zioa frogatuta dagoanean, saltzaileek ezin izango dabe aurka egin ikuskaketari ez eta salgaiaren geldiarazpen kautelarrari be. Osasun egoera txarrean dagoala aitortu dan salgaia suntsitu egingo da al baitariak agindutakoaren arabera, kontsumidu ez daiten.

Bere ikuskapenetan al baitariak egiten dauzan geldiarazpenak idazteko Erregistro liburua egongo da. Bertan adierazoko da: nondik etorrikoa dan salgaia, bere moeta eta pisua, saltzailearen izena eta egindako zerbitzua ondo zehazteko beharrezkoak diran generako datu guztiak.

**IV. TITULUA
SALTZAILEEN ALKARTEA****39. artikulua**

Saltokietako generako kontzesino eskubideetako titularrek Saltzaile Alkartean eratu daitezke, euretariko gehiengoak izenpetutako idazkia aurkeztuz gero.

Bere eduki juridikoa osotzen daben manuez gain, Estatutuetan ondorengo agertarazoko da:

- a) Hornikuntza zerbitzu publikoa era egokian burutzeko asmoz udalagaz lankidetzan lan egiteko konpromisua zuzendaritza organoen aldetik.
- b) Azokearen kudeaketaz arduratu nahi izanez gero, aretoaren mantenimentu eta zerbitzutik eratorritako zamen banakuntza modua.
- c) Alkartearen zuzendaritza organoetan udalaren parte hartze erak.

**V. TITULUA
LEGE-URRATZEAK ETA ZIGORRAK****I. KAPITULUA
XEDAPEN OROKORRAK****1. SEKZINOA
ERANTZUNKIZUNDUN PERTSONAK****40. artikulua**

Saltokietako titularrek izan daikiezan erantzukizun zibil edo penalez gain, Araudi honetan edo legezko xedapen edo osagarrietan agertzen diran lege-urratzeen erantzukizun administratiboa izango dabe.

41. artikulua

Saltokietako titularrek, euren zerbitzura dagozan pertsonak Araudi honeri egindako lege-urratzeen erantzukizuna izango dabe.

2. SEKZINOA LEGE-URRATZEAK

42. artikulua

Lege-urratzeak arinak, larriak eta oso larri lez sailkatuko dira.

43. artikulua

Hutsegite arintzat hartuko dira:

a) Saltokietako titularrek, portaera txarrak izatea euren arteko hartu-emonetan, bezeroakaz eta Azokan dagozan agintearen langileakaz.

b) Saltokiaren barruan eta haren alboko eta zabalera bereko pasabide aldean garbitasunik ez izatea.

c) Azokako pasabideetan, fatxadan edo saltokietako estalkietan salgaiak, ontziak edo beste edozer ipintea.

d) Egoki, garbi eta egoera onean jantzita ez egotea.

e) Administrazioak edo Azokako Zuzendaritzeak emondako agindurik ez betetea.

f) Kilogramoko, dozenako edo piezako salgaien prezioak jarrita ez eukitea.

g) Barria, garbia eta Osasun Sailak baimendutako paper edo plastikoan salgaia ez ipintea.

h) Hermetikoki itxitako metalezko baldeetan sastarrak, salmenta jardueratik eratorritako balio bako gauzak eta abar ez sartzea, lokal barruan edo horretarako jarritako lekuan.

i) Bere helbidea eta horren aldakuntzak titularrak udalari ez adierazotea.



j) Ezarritako ordutegiaren arabera, saltokia puntualki ez zabaltzea edota ez ixtea.

k) Salgaiaren izaera edo prezioa aldarrikatzea eta bezeroei deitzea.

l) Saltoki finkoetan, balantza automatikorik ez erabiltea salgaiak pisatzeko.

m) Titularrak egindako erosketen frogagiririk ez gordetea.

n) Ontziratutako janariak bezeroen esku eukitea.

ñ) Aurreko artikuluetan aurrikusi ez dan Araudi honetako beste edozein lege-urratze.

44. artikulua

Hutsegite larritzat hartuko dira:

a) Udal lizentzia eskatu ez lortu barik erabarritze lanak egitea.

b) Saltokiaren jarduerarako Uualak baimendu ez dauzan salgaiak saltzea.

c) Saltokian bere salmentarako erakutsita daukazan salgaiak bezeroei saldu nahi ez izatea, jarrera maltzurra egon dala ikusiz gero.

d) Udaleko ordezkaria eta udal albaitariaren jardutea galerazotea.

e) Pisu osoan salgaiak saltzea edota saltzailearen alde balantza desorekatuta eukitea.

f) Salmentatik salgaiak kendu edo gordetea bere prezioa mantendu edo igoteko.

g) Justifikazio barik, saltokiaren buru modura, ez egotea titularra edo Alkatetza-Udalburutzak baimendutako pertsona.

h) Istiluak edo liskarrak eragitea, dana dala zioa.

i) Urtearen barruan bost egun jarraikoetan edo hogeita hamar aldizka saltokia ez erabiltea, Udal Aginteak aintzat hartutako justifikazio barik.

j) Ahoz edo egitez burututako laidoak.



k) Eraikinari, saltokiei edo instalakuntzei kalteak eragitea doloz edo ardura barik.

l) Hutsegite arina berregitea.

45. artikulua

Oso hutsegite larritzat hartuko dira:

a) Osasun aldetik ondo ez dagozan salgaien salmentea, erantzunkizuna saltokiaren titularrarena danean, erruaren zatia jagokon jurisdikzinoari igarotearen kalte barik.

b) Nahiz dala aldi baterako nahiz dala behin-betirako, saltokiaren eskualdaketea edo azpiarrentea egitea.

c) Udalaren baimena aurretiaz izan barik saltokia lagatzea.

d) Udal Aginteak aintzat hartu bako zio zuzen barik saltokia itxita eukitea, hogeita hamar egun jarraietan edota aldizkako hirurogeitan, urtebetearen barruan.

e) Mahaietan saltzen diran nekazal produktuen ezaugarri, kalidade eta jatorria modu egokian ez identifikatzea, datu honeekaz iruzur egitea edota udalak, egoki eristen dauzan ikuskapenak egiteari uko egin edo oztopatzea, eta eskatutako agiririk ez aurkeztea (produktuen jatorria eta kalidadea bermatzeko).

e) Hutsegite larria barriro egitea.

f) Kanon eskagarriaren 3 hilabetekorik ez ordaintzea.

3. SEKZINOA BERREKETE A ETA BIRJAUSTEA

46. artikulua

Lege-urratze baten erredunaren erantzukizuna arintzen daben egoerak dira:

1. Egitatearen ondorioz interes publiko edo pribaduetan izandako hain kalte larrikerik eragiteko asmorik ez izatea.

2. Zigor egintzak hasi orduko eragin dauen kaltea konpondu edo gitxitzeko lanak egiten hasi izatea erruduna.



Erantzukizuna gitxitu edo larritu daikien egoerak dira:

1. Jardunaren norakoen ezaguera txikiagoa edo handiagoa izatea, errudunaren ohiko lanbide edo jardueraren arabera.

2. Lege-urratsetik lortutako onura txikiagoa edo handiagoa, edota bere kasuan, bertatik eratorri ahal dan onura ekonomikoa izatearen asmo barik egitea.

47. artikulua.—Prozedurea

Zigor prozeduraren tramitazioan, instruidu dauen Administrazioak jagokon legedia aplikatuko dau, eta ezinean, Herri Administrazioetako Erregimen Juridiko eta Prozedura Administratibo Bateratuaren Legearen barruan arlo honetaz dagozan xedapen arautzaileak eta garatzeko araudia.

4. SEKZINOA ESKUMENA ETA ZIGORRAK

48. artikulua

Araudi honen lege-urratzei jagokezan zigorrak ipintea alkateari jagoko.

Espedientea instruidu eta interesatuari audientzia emon ondoren jarriko dira bakarrik zigorrak.

Isunen baimendutako dirukopururik handienaren barruan, zuhurtziarakotasunez finkatuko da, lege-urratzailearen kasuaren egoerea eta aurrekariak kontuan izanda.

Dirukopururik handiena ondorengoak izango da:

a) Hutsegite arinentzat:

1. Ohartarazpena edo 2. 50 eurorainoko isuna.

b) Hutsegite larrientzat: 100 eurorainoko isuna eta 1etik 30 egun bitartean saltokia ixtea.

c) Hutsegite oso larrientzat: Kontzesinoa iraungitea.

XEDAPEN GEHIGARRI BAKARRA



Araudi hau aplikatuko da: saltoki itxietan, banku moduluetan, biltegietan, ganbara eta eguneroko saltokietan, jarduera baxotxa beraren izaeraz bateragarria dan guztian.

XEDAPEN IRAGANKOR BAKARRA

Araudi hau indarrean sartu aurreko postu titularrei, aurreko Araudia aplikatuko jake, araudi honetako 12.1 artikuluan aurreikusitakoa izan ezik, postu titular guztieri aplikatuko jakena, titulartasuna eskuratzeko data eta modua edozein izanda be.

AZKEN XEDAPENAK

Lehenengoa.— 7/85 Legearen 70.2 eta 65.2 artikuluetan ezarritakoaren arabera, Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratzen danetik igarotako 15 lan egun igaro ondoren hasiko da indarrean Araudi hau.

Bigarrena.—Saltzaileen Alkatea entzun eta gero, udalaren beraren ekimenez onartzeko behar diran tramiteak jarraiturik aldatu daiteke Araudi hau.

Bermeon, 2015eko ekainaren 9an.
Alkatea,
Idurre Bideguren Gabantxo

